

ZAI

ZORROTZ MORROTZ • Zorrotza herriakolona • 69.alea, 2023ko Iraila



LEIRE GARCÍA

Marrazkilaria

Imajinatzen
duzu Zorrotza
merkataritzarik
gabe?

Baduzu eskaintzarik
onena Zorrotzatik
irten barik

ZAINDU TOKIKO MERKATARITZA

EROSI AUZOAN!



www.comerciantes-zorrotza.com

EMAN IZENA



BERBALAGUN

Praktikatu Euskaraz Gurekin

Erraza da

- ✓ ZURE NEURRIRA ✓ HURBIL ✓ LAGUNARTEAN ✓ DOHAINIK ✓ ABANTAILAK

Berba 607 530 132
lagun
praktikatu.zus/blog/bilbao
berbalaguna@eusk.eus



BERTSO SAIOA

ZORROTZA
Jaia 2023

Irailak 24, Igandea | Azoka Plazan. 12:00etan



Igor Elortza



Sustrai Colina



Alaia Martin



Beñat Gaztelumendi

Azokazainak:



Bilbao:



Laguntza:



Legegintzaldi berrirako helburuak

sarrera



Zorrotzako herri aldizkaria
83. alea, 2023ko iraila

f @ZorrotzMorrotz
Twitter @zorrotzmorrotz
✉ zmorrotz@gmail.com

Argitaratzen du:
Zorrotzako Euskal Txokoa

Erredakzioa:

Ibai Barrios
Ainara García
Igor Gutiérrez
Aitor Marín
Naroa Peña
Iratze Pérez
Zuriñe Vila

Laguntzaileak:

Manu Cobo
Asier Urkiza

Koordinazioa:

Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:

Aitor Marín. (amc diseinua)

Zuzenketak:

Iñigo Ramirez de la Piscina



Bilbao
EUSKAL
MEDIARTE

Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko udalaren diru-laguntza jasotzen du.

Edukia erantzule bakarrak ZM bera eta kasuan kasu, testuaren sinatzaileak dira.

Ikasturte eta udal agintaldi berria hasten dugun honetan, Auzo Elkarteak helburu argiak ditu hementik eta 2027 urtera:

- FEVE geltokia lurperatu.
- Sader-Profersa lekualdatu.
- Zorrozgoiti kalean gizar-te-etxe berri bat eraiki.
- Ondare historiko-industrialari balioa eman.
- Txartel bakarra, KBuseko geltokia, Bilbobuseko 28. linearen luzapena eta Metroko 4. linea.
- Espaloia eta semaforoa Altamira eta Zazpi Landa artean.
- Erretiratu eta Pentsiodunen Elkarterako igogailua
- Zorrotzako lorategian iris-garritasun-irtenbidea.
- Zorrotza-Kastrexana kalea hobetu.
- Zorrozgoiti bidea hobetu: 5. zembakitik 18.era.

- Txinbo parkeko txakur-eremua handitzea, eta bertan komuna jartzea.
- Zorrozgoiti plaza egokitu belaunaldiarteko proiekturako
- Kadaguako erribera berreskuratu.
- Burtzeñako zubiko espaloia estali.
- Usandizaga musikaria kalea eraberritzea.
- Txinbo Parkearen ondoan igerileku estali-gabeak.
- Alonsotegiraino bidegorria.
- Kiriolako kaia ireki.
- Kiroldegiko futbol zelaiari bi aldagela berri eraikitzea.

Era berean, kalitatezko osasun-zerbitzu publikoak aldarrikatzen jarraituko dugu eta oso adi egongo gara bizikidetzaz guztiok nahi dugun bezala garatu dadin.



IZAN ZAITEZ HARPIDEDUN!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mail bat zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora, gaiaren laukian **"harpidetza"** jarriz



*Ettxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu bitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es



BAR VENECIA

Especialitateak:
Kafea, tortilla, tortilla beteak
eta bestelako pintxoak

Abaro esrara 10

AUPA ATHLETIC




Zure zain gaituzu
Zalbidea estratako 13an.

CROSS TRAINING
ENTRENAMENDU FUNTZIONALA
TXIKICROSS

Deitu 623 106 531 telefonora



Jai egitarau oparoa bederatzi egunetan gozatzeko



TxinboMikelek ez du urteroko hitzordura hutsik egingo, eta irailaren 22tik aurrera zorrotzarrok musikaz, antzerkiaz, kirolaz, eta ondo pasatzeko aukera ugariz betetako jaietan murgilduko gara.

AITOR MARÍN

Bueltan daude Zorrotzako jaiak! Pandemiaren ostean, eta iaz murrizketa gabeko jaiak ospatu ondoren, iazko mailari eutsi nahi dio Jai Batzordeak. “Herritik eta herriarentzat sortutako” ereduaren formula sinpleari eutsita, hainbat eta hainbat norbanakoren ahalegina goraipatu dute, eta aldiz, Udalarengandik laguntzarik ez izateagatik berriro kexu agertu dira Jai Batzordeko kideak aurten: “Lotsagarria da Bizkaiko hiriburua beren auzoetako jai batzordeei laguntza gutxien ematen dien udalerria izatea” salatu dute.

Hala ere, zailtasunak-zailtasun, dantzatzeko, gozatzeko eta ondo pasatzeko aukera ugari emango ditu jaietako bederatzi egun haue-tarako prestatutako egitarau oparoak. Adin guztientzako musika, antzerkia, jokoak, dantzaldiak, lehiaketa gastronomikoak, eta abar-rak ez dira faltako, eta urtero bezala, guztion parte-hartzea funtsezkoa izango da jai herrikoien arrakasta bermatzeko. Kuadrillen lehiaketak gazteen parte hartzea bermatu nahi du, eta nagusiek ere hutsik ez egiteko, bigarrenaz 60 urtetik gorakoei espresuki zuzendutako ekintzak izango dira +60 programan.

Musikari dagokionez, Versus, Kresala, La Mala Pekora eta La Tokokera arituko dira Zorrotzako eszenatokian asteburu-etako gauetan. Lehen ostiraleko gaua, aldiz, estreinakoz, azoko Djen tartea izango da, eta Conjunto Afinkao eta La Klandestina taldeak igande arratsaldeetan arituko dira.


Euskara bultzatzeko ekintzak

Era berean, jaietan euskara bultzatzeko eta sustatzeko ekimenak ere ez dira faltako aurten. Umeei zuzendutako pare bat ekitaldi babestu du Zorrotzako Euskal Txokoak, biak azken asteburuan. Irailaren 30ean Txan Magoaren ikuskizunarekin gozatzeko aukera izango dute txikienek eguerdiko 13:00etan. Horretaz aparte, “egurrezko jolasak” babestu ditu Euskal Txokoak hurrengo egunean eguerdiko 12etatik aurrera, eta bertan euskaraz arituko dira parte hartzaileak.

Aipatzekoa da era berean, irailaren 24an eguerdiko 12etan, eta Askabide Kultur Elkarteak babestuta, Azoka parkean antolatutako bertso saio handia. Bertan, Igor Elortza, Sustrai Colina, Alaiia Martín eta Beñat Gaztelumendi izen handiko bertsolariak taularatu-ko dira Azoka plazara.

KONGRESU ETA SENATURAKO HAUTESKUNDEAK ZORROTZAN

PSE nabarmen gora eta irabazle argia. EAJ eta Sumar behera; EH Bildu eta PP, gora



AITOR MARÍN

Alderdi Sozialistak irabazi zituen uztailaren 23an Zorrotzan Kongresurako eta Senaturako hauteskundeak. Garaipen argia, 400 bototik gora igota, eta hurrengo alderdiak (EAJk) baino 800 boto gehiago lortuta. EAJk, 600 boto inguru galdu ditu 2019ko Espainiako hauteskundeetatik, eta ez zuen lortu maiatzeko udal hauteskundeetan izandako beheranzko joera iraultzea; maiatzean 400 boto baino gehiago galdu bazituen, uztailean maiatzeko udal hauteskundeetan baino 300 boto gutxiago izan zituen.

Hirugarren postua EH Bildurentzat da. Maiatzeko udal hauteskundeetako zenbakiak errepikatzea lortu ez bazuen ere, 2019an baino 300 babes gehiago lortu zituen indar subiranistak, 847 boto eskuratuta.

Sumar mugimenduak, bere aldetik, Unidas Podemosek 2019an lortutako babesen zati handi bat galdu du, 900 boto inguru izatetik 500 boto inguru lortzera pasatuta. Azkenik, PPK emaitza hobetu zuen eta Sumarrek lortu zuen laugarren postutik bi bitora geratu da, 2019an baino 105 boto gehiago lortuta.

42,4 gradutara helduta, Zorrotzan inoiz hartutako temperatura maximoaren errekorra gainditu da abuztuan

ZORROTZ MORROTZ

Pasa den abuztuaren 23an, datuak daudetik Zorrotzan izandako temperatura maximoaren errekorra gainditu zen. Euskalmetek emandako datuen arabera, 42,4 gradutara heldu zen termometroa, aurreko maximoa 2 gradutan gaindituta.

Egun hartan Bizkaia osoan tenperatu maximoen errekorrak gainditu ziren. Aipatzekoa da Sodupen 45,6 graduko temperatura erregistratu zela, herrialdeko maximoa. Gure auzoko kasuan, aurreko tenperatu maximoa, iazkoa izan zen (40,4°).

Vía gráfica

viagraficzorrotza@gmail.com

Disenya

Punta Zorrotzako ikus-entzunezko “hub”ak 2027an platoa prest izango duela aurreikusi du Bilboko Udalak

Ekonomiaren Garapen, Turismo eta Merkataritzako zinegotziak adierazi zuenez, 2024aren hasieran lizitatu nahi dute zerbitzu-emakida.

ZORROTZ MORROTZ

“Urtea amaitu baino lehen” prest egongo da Punta Zorrotzan garatuko den ikus-entzunezkoen “hub”aren azpiegitura eta bideragarritasun ekonomikoko plana, joan den udaberrian, haustekunde kanpaina bete-betean Udalak agindu zuena. Xabier Ochandiano Ekonomiaren Garapen, Turismo eta Merkataritzako zinegotziak horrelaxe azaldu zuen. Bilbon, uztailean lehenengo egunetan PROFILMeko (Nazioarteko Ikus-entzunezkoen Espainiako Ekoiztetxeen Elkarte) bazkideen urteroko topaketan emandako prentsaurrekoan adierazi zuenez, Udala dagoeneko lanean ari da proiektuaren diseinuan. Ochandianoren arabera, zerbitzu-emakida 2024ko hasieran

egino litzateke, eta instalazioak 2027an barrualdean filmatzeko prest egongo liriateke.

Platoa eraikitzeaz gain, Bilbo eta Bizkaia ikus-entzunezkoen industriaren gune bihurtzeko erakunde-plan baten barruan “beharrezko” beste gai batzuk ere badaude. Horregatik ‘hub’ izena: platoa, prestakuntza, tailerrak, mota guztietako teknikariak, kamerak edo argiak alokatzeko enpresa laguntzaileak... ere beharrezkoak direlako. Horiek ere ziurtatzeko erakundeak lanean ari direla adierazi zuen udal arduradunak. Hala ere, bozeramaileek ohartarazi zuten jarduera horren eragin ekonomikoa epe luzera baino ez dela jasotzen, “gutxienez sei edo zortzi urtean”.



“Toure detektibea” telesailko grabaketa, Zorrotzan

Detective Touré telesailaren eszena batzuk Zorrotzan grabatuta egongo dira. Abuztuaren 20tik 24ra, hain zuzen ere, telesailko lantaldea lanean aritu zen Estrada Abaro, Geltoki bidea, Soka, Usandizaga musikaria, Clara Campoamor eta Zorrotzgoitibidea kaleetan grabatzen.

Kiroldegiko atletismo pistaren ondoko instalazioak berritu dituzte

Aldagelak, erabilera anitzeko aretoak eta dutxak egokitu dira 1.700 metro karratu baino gehiagoko eraikin berrian. Sei urtez antolatutako gabe egon ondoren, Bilbo Hiria Nazioarteko Bileraren itzuleran inauguratu zen azpiegitura berri hau.

ZORROTZ MORROTZ

Zorrotzako kiroldegiak joan den uztailean inauguratu zuen atletismoko pistaren ondoko eraikin berria. Lanak 2022ko maiatzean hasi ziren, eta zaharkituta geratu ziren espazio haiek eguneratzea zuten helburu. 2021ean atletismo-pista eta belar artifiziala berritu ostean, jarduera honekin kiroldegiko atletismo eremuko instalazioak eguneratzeko ekimena bukatu da.

Eraikina bi solairutan banatuta dago, aurreko egitura berrerabilita eta modernizatuta. Obrak bi milioi euro baino gehiagoko gastua ekarri du, eta beheko solairua eta lehen solairua lotzen dituen igogailu batekin bermatzen du irisgarritasuna. Harmaila ere guztiz irisgarria

da lana bukatu ondoren. Gainera, instalazioek dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat egokitutako bost aldagela independente berri dituzte, eta material astuna biltegitratzeko modulu berri bat, epaileen eta arbitroen gu-nearekin eta erizaintzako eta lehen laguntzako espazioarekin bat egiten duena.

Nazioarteko lehiaketa

Instalazioek inaugurazio ezin hobea izan zuten uztailearen 12an. Izan ere, sei urteko geldialdiaren ostean Bilbo Hiria Nazioarteko XVIII. Atletismo Bileraren gurean ospatu baitzen berriro. Munduko hainbat herrialdeetako 400 kirolarik hartu zuten parte bilera hartan, Ana Peleteiro, Archie Davis, eta Abdesasalem Ayouni atleta famatuak besteak beste.

RISKO
Burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7
Telefona: 94 441 64 86

1^o urte



ZORROTZA F.C.
kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!

MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalvidea estrada, 5 - atzea
ZORROTZA
48013 BILBO



MADNES

Tel. 94 441 62 75

STAZ
OKINDEGIAK

Zorrotzako labea

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepidea, 34
Tfn. 94 441 09 71
Zorrotza - 48013 BILBO



// Bizitza soziala oso ezberdina eta zaila da hemen //

VALVANERA VOZMEDIANO

Bizitokia: Florida. (AEB)
Noiztik: 2014tik.
Adina: 41 urte.
Lanbidea: Senior Director Model Informed Drug Development .

Hango lan aukerak aprobetxatzeko *Bizkaia Talent* beka probestuz heldu zen Valvanera Floridara. Bertako arlo profesionaleko errekonozimendua gustuko badu ere, faltan ditu Zorrotzako bere ohiko ohiturak eta gurean bizitzera bueltatuko dela ziur dago.

TESTUA: AINARA GARCÍA

Noiz eta zergatik joan zinen Floridara bizitzera?

2014. urtean Floridara etorri nintzen *Bizkaia Talent* bekarekin. Bilbora itzultzean horrekin nahikoa ez nuela pentsatu eta Floridara bueltatu nintzen berriro.

Zein da zure lana? Hemen egindako lan berdina da?

2017. urtean irakasle hasi nintzen Florida-ko Unibertsitateko *Center for Pharmacometrics and Systems Pharmacology*. Aurten *industriari Senior Director* postua onartu dut. Bertan paziente birtualak simulatzen dituzten eredu matematikoak garatzen ditut; honek organismoak farmakoak nola xurgatu, banatu eta desagerrarazten dituen eta farmakoak, ekin-tza-lekura heltzen denean, nola jarduten duen jakiten laguntzen digu. Eredu hauek beste egora batzuk simulatzeko balio dute, adibidez beste dosis, biztanleria, arraza, zentzu berria... Azken finean, sendagaien garapena eta tratamenduen erregimena optimizatzeko baliogarriak dira. Bilbon nengoela lan berdina egiten nuen. Berez parke teknologikoko Dynaki enpresan lan egiten nuen, eta hura AEBko CTI-k erosi zuen. Horregatik, hasi nintzen lekura itzuli naiz baina AEBko taldea eratuz.

“ Faltan ditut hango elkarrizketak, azokara oinez joatea, kuadrilla eta pintxopoteak. Ahal dudan guztietan Zorrotzara bueltatzen naiz.

Asko kostatu zitzaizun bertako bizimodura moldatzea?

Egia esan, bai. Nahikotxo. Esango nuke oraindik ez nagoela ehuneko ehunera moldatua... Bizitza soziala oso ezberdina eta zaila da hemen.

Hizkuntza ikasi duzu?

Bai, jakina. Hona heldu baino lehen ingelesez ondo moldatzen nintzen, eta nola ez, hemen egonda, asko hobetu dut.

Zorrotzako eta Floridako ohiturak oso ezberdinak dira?

Bai, guztiz ezberdinak. Lanetik kanpo neukan bizimodua faltan dut, batez ere. Hemengo ohitura etxetik lanera eta lanetik etxera joatera mugatzen da. Ezer gutxi gehiago egiten da... Etxeko bizilagunekin elkarrizketak, azokara oinez joatea, umez betetako parkeak, kuadrillako lagunak, eta gure pin-txo-poteak izugarri faltan ditut.

Maiz itzultzen zara Zorrotzara?

Bai, ahal dudan guztietan. Urtean behin gutxienez bueltatzen saiatzen naiz.

Zer da gehien duzuna faltan? Eta gutxien?

Faltan, jendea, lagunak familia eta janaria. Eta gutxien, aparkalekua lortzea. Hemen, Zorrotzan ez bezala, ez dut aparkatzeko arazorik, kar, kar!

Zer da AEBtan gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?

Gustukoena hemen dauden lan aukerak eta arlo profesionaleko errekonozimendua. Kontra, gutxien gustatzen zaidana da hemengo bizimodua. Familiarik ez badaukazu, bakardadea izugarria eta oso latza da.

Bukatzeko, Zorrotzan bizitzera itzuliko zara?

Bai, jakina! Gainera nire auzoaz eta bere jende onaz oso harro nago!!!



**ZORROTZA
HERRIGINTZAN**



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefona: 94 405 92 63
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)



ZORROTZAKO FUTBOL SALA

25 urte beteko duen familia

Urteuren bikoitza ospatuko du aurten Zorrotzako Futbol Salak. Hogeita bost urte dira kluba sortu eta hamar urte, berriz, nesken taldea martxan jarri zutenetik. Familia gisa jokatzeko dute, zelai barruan nahiz kanpoan.

TESTUA: IGOR GUTIÉRREZ

Luis Garcia eta David Gonzalez Zorrotzako Futbol Salako presidentea eta delegatua dira, hurrenez hurren. “Luisete” klubeko sortzaileetako bat da eta entrenatzailea ere izan zen, orain dela hogeita bost urte sortutako mutilen lehen taldean. Urte batzuk geroago, nesken taldea ere sortu zuten eta egun, biak federatuta daude eta auzoko kiroldegian entrenatu eta jolasteko dute.

Mutiletan, jokalariek gehienak auzokoak dira, nesketan ez bezala. Izan ere, orain dela hamar urte nesken taldea sortzeko Zorrotzako lortu ez eta Bilbo inguruko klubetara jo zuten jokalariek. Baina zorionez, egindako lanaren ondorioz, gero eta neska gehiago dira auzokoak.

Entrenatzaileak, berriz, auzokoak dira eta horrela izaten saiatzen dira, klubak beraien fitxak eta formakuntza ordainduz. “Areto-futbola kirol xume bat da eta gure kluba ere xumeagoa”, dio Luisek. Soldatarik ordaindu ezinean, auzoko talde batean aritzeko harrotasuna da erakartzen dituenak.

Neskak, egoera zailagoan

Beste kiroletan eta oro har, bizitzako arloetan bezala, areto-futboleko ere nesken egoera mutilena baino zailagoa da. Hasteko, liga bakar bat dago, Bizkaikoa. Irabaztekoan, kluba Estatu ligara pasatzen da eta horra lehenengo oztupoa: bidaia asko egin behar dira eta ezin lortu hainbeste diru babesleengandik. Beste oztupo bat, harritzekoa bada ere, haur eta nagusien kategorien artean ez dagoela jokatzetik da. Hau da, 8 urtetatik 16 urtera arteko neskek ezin dira areto-futboleko jokatu. Eta 16 urtetik aurrera, denak batera, berdin du 18, 15 edo 30 urte izan. “Azken hogeitaz urteotan ez da ezer aurreratu, dena berdin dago”, dio Davidek.

Mutiletan, ordea, lehia askoz mailakatuago dago: Bizkaian bigarren maila, lehen maila, lehentasunezkoa eta ohorezkoa daude. Irabaztekoan, Euskadiko ligara pasatzen dira eta ondoren, Estatu ligara. Orain, lehentasunezko mailan daude Zorrotzako mutilak. Kirol hau praktikatzeko borondatezko gauza da. Luiseteren esanetan, “batzuetan jokalariek ezin dira entrenatzera etorri, txandaka lan egiten



dutelako". Horrelakoetan lana lehenesteko esaten diete eta ez fitxatzeko.

Auzotik eta auzoarentzat

Zorrotzako Futbol Salan argi dute zein den beraien abiapuntua eta helmuga: auzotik auzoarentzat. Horregatik, auzoko jendea erakarri eta aktibatzeko hainbat estrategia martxan jartzen ari dira. Partida egunetan, atsedendia diak probesten dituzte umeentzako zozketak eta jolasak egiteko. Sekulako giroa lortu dute, kiroldegia topera egoten baita, bai mutilek bai neskek jokatzeko dutenean.

Bestetik, auzoko beste eragilerekin batera (Gure Lurra, Eise) elkarlanean jarri dira, Denok Batera League gazteentzako futbito lehiaketa antolatuzko. Kings League delakoaren antzeko formatua eman diote txapelketari eta arrakasta handia lortu dute. Eta Gazteguneko Auzo Aktibe programan ere parte hartu dute, aisialdi aktiboa bultzatzea helburu duena. Azkenik, neskak erakartzeko iniziatiba bat dute: entrenamendu irekiak. Hau da, taldean izena eman gabe entrenamenduetara etortzea, jokatzea ala ez argi ez daukatenez.

Familia solidario bat

Luis eta David bat datoz kluba definitzeko orduan: "familia bat gara". Eta esaldi hori keinu zehatzetan hezurramitzen da. Esaterako, baten bat partida batera etorri ezin denean, beste batek fitxa egiten du egun horretarako. Baina elkartasun hori klubaz haratago eramaten dute, kanpaina solidarioen bitartez. Iaz,

garun-paralisia duen ume santurtziar baten aldeko diru-bilketa antolatu zuten eta egun bakar batean 300 euro lortu zituzten.

Aurten, berriz, bularreko minbiziaren kontrako ACAMBI elkartearen aldeko ekimen ikusgarri bat jarri dute martxan. Kamiseta berezia egin dute eta liga osoan zehar hura jantzita jokatu dute. Horrez gain, kamisetak 20 euroan saltzen ari dira, Internet bidez eta auzoko zenbait saltokitan (Biritxi, Magia...). "Rayo Vallecanoren ereduarekin geurean errepikatzea posible zela argi genuen", dio Davidek. Eta ez dabilta oker; lehen bi asteetan 150 ale saldu baituzte. "Etorkizunean auzoko norbaitek gure laguntza beharko balu, argi daukat klubak erantzungo duela", aitortzen du Luisnek.

Urteurren berezi bat

Aurten, pregoia irakurriko dute auzoko jaietan, klubak 25 urte eta nesken taldeak 10 egiten dituela ospatzeko. Oholta gainean Luis presidentea egongo da, nahiz eta kostatu egingo zaiola onartu. "Niretzat oso hunkigarria izango da, gure artean ez daudenekin gogoratuko naiz halabarhar: Imanol presidente-ohia eta fundatzailea, Yolanda bere emaztea, Dani gure entrenatzailea eta, nola ez, nire emaztea".

Ez da bakarrik egongo, ordea. Ondoa izango ditu Zorrotzako Futbol Salako jokalariei eta lagunak, berari tiraka. "Luis gure aita bezalakoa da eta guk familia bezala elkartzeko erantzungo dugu", laburbildu du Davidek.

LEIRE GARCÍA: Marrazkilaria

**“ Marrazketa
baliatzen dut
sentimenduak
askatzeko eta
islatzeko ”**



Txiki-txikitatik, Leire arkatza eskuan duela bizi da, eta burutik pasatzen zaizkion ideia eta pentsamendu ugari bide emateko tresna izan da marraztea. Ogibidez garbitzailea bada ere, marrazketa da bere benetako pasioa. Bere lehen komikia argitaratzea lortu du aurten “Story of a Dick” izeneko gidolaria izan den Javier Fernández Panadero zientzia-dibulgatzaile ezagunarekin batera. Gainera, duela lau urte youtuber famatu baten beste liburu bateko ilustrazioak egin zituen, doktore-tesiak ere ilustratu ditu, eta lan on bat nahi duenarentzat enkarguak egiten ditu.

TESTUA: AITOR MARÍN

ARGAZKIAK: ÁLVARO BAYON (VARY) ETA AITOR MARÍN

Noiz eta nola sortu zitzaizun marrazketa eta komikiarekiko interesa?

Oso txikitatik izan dut marraztea gustuko. Gogoan dut Lehen Hezkuntzako postgarren kurtsoan gutxi gora behera, komiki bat egitea eskatu zigutela, orrialde batekoa. Ni irakasleak eskatutakoa egiten saiatu nintzen, baina askoz orrialde gehiago behar nituen buruan neukan ideia paperean islatzeko. Azkenean, nahiz eta ezin izan nuen garaiz bukatu, lan hura benetan gustatu zitzaidala konturatu nintzen. Ez dakit nola azaldu, baina nire burutik pentsamendu eta ideia asko pasatzen dira oso azkar, eta komikia edo marrazketa ideia horiei bide emateko tresna da.

Aipatu bezala, txiki-txikitatik arkatza eskuan. Baina teknika hobetzeko ikasketarik egin al duzu?

Ba ez. 20 urterekin ikastaro batera joan nintzen, baina uste dut ez nuela ia ezer ikasi bertan. Guztiz autodidakta izan naiz. Hala ere, onartzen dut zailtasunak ditudala gauza batzuk irudikatzeko. Adibidez, batzuetan, oso kaotikoa egiten zait buruan ditudan perspektiba batzuk paperean islatzea.

“Arkatza da nire tresnarik gustukoena. Arkatzarekin lortzen ditudan trazoak ez dira ordenagailuan lortzen

Orduan ez duzu ikasketa artistikorik egin?

Artearen historia ikasi nuen bi urtez eta Arte Ederrak hasi nituen, baina bertan behera utzi nuen makillajeko eta karakterizazioko LHko gradu bat egiteko. Ez da gauza bera, baina nolabait, lotura badauka: koloreak, eskulana...

Eta nola liteke marrazketa ikasketarik jaso gabe komiki bat argitaratzea? Zein da zure metodologia marrazketari ekiteko?

Batez ere argazki askorekin dokumentatuta. Jar dezagun adibide bat: mahai bat marraztu behar dut... Agian berrogei mahairen argazkiak bilatuko ditut, eta informazio hori buruan barneratuta dudala, marrazten hasiko naiz.

Noiz eta non hasi zinen zure lehen marrazkiak argitaratzen?

Nire lehen enkarguak Komiki Aretoan izan ziren. Bertan, marrazkilari amateurrek beren lanak erakusteko eta saltzen saiatzeko aukera ematen duten postuak badaude. Gauza jakin bat marraztea nahi duten bezeroen enkarguak ere jasotzen dira...

Marrazkilari baino lehen, irakurlea izan zinen? Noiz hasi zinen komikiak irakurtzen?

Nire nebak Mortadelo y Filemónen komiki asko zituen, eta oso txikitatik behin eta berriro irakurtzen nituen. Hori izan zen komikiarekiko nire lehen harremana.

“Story of a Dick, aventuras de un pene existencialista” argitaratu berri duzu. Eleberri grafiko honetan marrazkiak zureak dira, baina gidoia Javier Fernandez Panaderorena da. Nola heldu zitzaizun enkargua?

Ba zorte handiarekin, kar, kar! Gidolaria zientzia-dibulgatzailea da, eta nik ezagutzen ez nuen arren, nahiko ospetsua da bere esparruan. Nire Twitterreko timelinean marraz-



“**Aske izan nintzen “Story of a Dick” liburuko pertsonaiak nik nahi bezala irudikatzeke, eta erraz atera zitzaizkidan**

“**Ametsa litzateke marrazkigintzan profesionalki aritzea, baina oso zaila da**

kilari baten bila zebilen bere argitalpen bat agertu zitzaidan. Zuzenean, marrazkilari hura ni nintzela esateko idatzi nuen. Baina nik egin bezala, beste askok ere egin zuten... Mezu pribatu bat bidali zidan eta liburuaeren protagonistak zakil bat izango zela azaldu zidan. Ez beldurtzeko eskatu ondoren, pertsonaiaren ezaugarriak nolakoak nahi zituen azaldu zidan (pornografiako estereotipotik urruntzeko, nazka eman gabe...) Marrazki pare bat bidali nion eta baiezkoa eman zidan oso azkar.

Zer esango zenioke irakurleari komiki hau irakur dezan? Zer topatuko dugu bertan?

Zer pentsatua ematen duen eta buru zabalik irakurri beharrekoa da. Filosofala. Protagonista zakil bat da, baina ez da zakil hutsa; Dick da, bizitza propioa hartzen duen zakila, bere nortasuna duena, eta mundu guztiak bezala, aukera bat merezi duen izaki biziduna.

Gidoia eta pertsonaiak zuk sortutakoak ez izateak zailago egin al du lan-prozesua?

Ba kasu honetan, ez. Javierrek aipatu zizkidan pertsonaia batzuen ezaugarriak, baina aske izan nintzen nik nahi bezala irudikatzeke, eta erraz atera ziren.

Eleberri grafiko honez gain, beste liburu bateko ilustrazioak ere egin dituzu.

Bai. El crítico de cineren “*No seas el primero en morir*”. Umorezko filmak komentatzen dituen youtuber bat da El crítico de cine. Li-

burua 2019koa da, eta liburu hori ilustratzeko lehiaketa moduko bat antolatu zuen. Ikea merkatalgunean banpiro izutu baten irudia eskatzen zuen proban, aulki eta mahaien hantketan hesolak ikusten zituelako. Bikotekidearekin komentatu nuen, aurkezteko itxaropen eta gogo handirik gabe, baina berak animatu ninduen... Eta azkenik, nik baino marrazkilari hobeak bazirela uste dudan arren, nire marrazkiaren lerro eta trazuen estilo garbia asko gustatu zitzaionez, lehiaketa irabazi eta liburuko marrazkiak egin nituen.

Zer suposatzen du zuretzat marrazteak?

Askatasuna. Sentimenduak eta bizipenak asmatzeko eta islatzeko bide bat.

Nola egiten diozu aurre paper zuriari?

Hori da zailena. Askotan, nahiz eta ideia oso argi izan, orri zuria ikustean ez dakit nondik eta nola hasi, eta hainbat zirriborro baztertu behar ditut nahi nuen emaitza lortu arte. Beste batzuetan, aldiz, kontrakoa gertatzen da: ideia batere argi izan gabe, marrazki ederra agertzen da.

Zeintzuk dira zure tresnak: arkatza, tableta grafikoak, software informatikoa, ...?

Normalean, tableta batekin eta dohainik den programa batekin dituen pintzelekin egiten dut lan, baina arkatza da nire tresnarik gustukoena. Arkatzarekin lortzen ditudan trazoak ez dira ordenagailuan lortzen.

// Munstroen barnean zer dagoen ez jakiteak erakargarri egiten du hauek marraztea //

ZM | 15

Komiki pertsonaiarik gogokoena?
The Sandmaneko Morfeo.

Inspiratzeko moduko erreferentziatzko marrazkilaririk baduzu? Nor edo nortzuk dira?
Ondo baino hobeto egiten duten eta gainera lagunak diren hauek: Soturisi, Nixarim, Alex Mg, Yaiza Thandart edota Leila Ramos. Eta famatuak, hauek: HR Giger, Louis, edo Ron.koza

Zein komiki edo liburu gomendatuko zenuke marrazkia interesatzen zaion pertsona orori?
Ufa! Hamaika aukera daude gomendatzeko! Esan bezala, ni Mortadelo y Filemón irakurriz zaletzen hasi nintzen... Manga munduan soilik aukera ugari daude.

Zer genero edo historia mota nahiago duzu marraztu eta zergatik?
Guillermo del Tororen erruz, munstroak. Hauek ikustean, arraroak direla ikusiko dugu, baina ez dakigu beren barruan zer dagoen, eta horrek erakarri egiten nau.



Zure sormen prozesuari dagokionez, noiz da marrazteko unerik onena?

Ba ez daukat une zehatzik. Edozein momentutan. Buruak agintzen du horretan, eta ezin kontrolatu.

Posible ikusten duzu marrazkigintzan profesionalki aritzea?

Oxala. Ametsa da hori, baina oso oso zaila da. Hemengo marrazkilaria onenek kanpoan ikasi behar izan dute. Nahiz eta Euskal Herrian zaletasun handia egon, bertan ez da

izan behar bezalako bultzada eta interesik erakundeen aldetik. Ikasketak aukeratu behar izan nituenean marrazketak irtenbiderik ez zuela entzun behar izan nuen... Hori ez da egia. Irudi grafikoek indar handia dute eta marrazketa oso inportantea da adibidez oso indartsua den bideojokoen industrian. Baina esan bezala, erakundeen aldetik ez dago interesik hori bultzatzeko, eta adibidez bideojokoetako marrazkilaria izateko ikasketak egiteko aukera bakarra irakaskuntza pribatuan da, eta oso garestia da.

**ESKAINTZA
PROGRESIBOETAN**
**ARMAZOIA +
KRISTALAK** GOI-
GAMAKoak
265€

Sustapena indarrean + 4.00€ serako eta
-2.00€ zilindroko arteko graduazioetanako
RPS: 213/18 **ibarretaluxury**
O P T I C A

Lápices
LIBURVDENDA

Untziola kalea, 8
ZORROTZA

Jai-Alai
kafetegia

Abate estreta, 12
94 490 12 59



AGENDA

Irailak 22 - Urriak 1

ZORROTZAKO JAIAK 2023

Egitarau osoa topa dezakezu
Jai Batzordeko sare
sozialetako profiletan

Irailak 24, igandea

12:00 Azoka parkean.

BERTSO SAIOA:
UNAI ELORTZA,
SUSTRAI COLINA,
ALAI MARTIN eta
BEÑAT GAZTELUMENDI



Igor Elortza

Susiran Colina

Alai Martin

Beñat Gaztelumendi

Irailak 30, larunbata

13:00 Azoka parkean.

Magia ikuskizuna: TXAN MAGOA



Urriak 1, igandea

17:30 Azoka parkean.

Umeentzako jolasak:
"Egurrezko jolasak"

Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko hurrengo agendan (abendua) iragartzeko, zmorrotz@gmail.com helbidera idatzi azaroaren 15a baino lehen.



2021-22 Gabriel Aresti sariak Batzuk.

Erein. 2023. 144 orrialde.




Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailak, duela hiru hamarkada baino gehiagotik, Gabriel Aresti Ipuin Lehiaketa deitzen du idazle bilbotarraren omenez. Lehiaketa horrek bigarren helburu bat ere badu, literatur sorkuntza bultzatzea, hain zuzen ere.

Liburu honetan biltzen dira 2021. eta 2022. urteetan irabazi zuten kontakizunak, Karmele Mitxelena, Nerea Arruti, Juan Mari Atutxa, Saioa Alkaiza, Aritz Mutoizabal eta Maite Arruti idazleen lanak. Euren literatur kalitatea ikusita, ipuin horiek argitaratzeak merezi izan du, literaturaren eta egile handi guztiek landu duten genero honen zaleen gogamenerako



NERBIO BULKADA "Mendekoak" (Autoekoizpena) 2023



Duela bost urte jaiotako proiektuak bere bigarren lana argitaratu du ekaina amaieran. Bizkaiko power trio honek 8 abesti bildu ditu "Mendekoak" izenburupean. Ekoizpena Iñigo Escauriaza teknikariak burutu du eta mastera Victor Garciaren eskutik egin da.

Aurrerapen gisa, lanaren izenburu bereko abestia igo zuten ohiko plataformetara, eta bideoklip bat ere aurkeztu zuten, zinez gomendagarria eta YouTubean ikusgai duzuen.

Soinuari begira, gordintasun hitzak ezin ho-beago defini dezake taldeak lortu nahi izan duen emaitza, artifiziorik gabekoa eta zuzenekoei begira beharrezkoa den fideltasun eta naturaltasun puntu hori mantentzeko egokia. Kitarra bakarra izanik, oinarri erritmikoa oso presente dago abesti guztietan eta nahiz eta estilo aldetik kantak berdintsuak izan, intentsitate aldetetik sumatu daitezke diska osoan zehar.

Diseinuaren atzean Kuya aurkituko dugu, eta azala lehen aipatutako bideokliparen kontzeptuarekin lotuta (horretarako ikustea ezinbestekoa da). Horrez gain, diskaren izenburuan hizki eta zenbakiekin hitz-jokoa egin dute ikusgarriagoa izateko.

Euskarazko eszena gustuko baduzue, aukera eman talde honi!



Zailtasun maila: Erraza.
Prezioa: 1,30 euro.

Osagaiak: Kuiatxoak, gazta, urdaiazpikoa, arrautza eta ogia.

Lehenik eta behin, kuiatxoak xaflatan moztu, eta sandwich bat izango balitz bezala, sartuko dizkiogu barrutik urdaiazpikoa eta gazta.

Arrautza irabiatu ondoren, gure sandwicha arrautzetatu behar dugu eta frijitu.

Bukatzeko, ogi puxka baten ganean jarri, eta on egin!!

ASKABIDE TABERNA

Ordutegia:

Astehelentan itxita

Asteartetik - ostegunera: 12:00etatik - 15:00ak arte eta 18:00etatik - 22:00ak arte

Ostiral eta larunbatetan: 12:00etatik - 15:00ak arte eta 18:00etatik - 24:00ak arte

Igandeetan:
12:00etatik - 15:00ak arte

Frai Juan Kalea, 20



ehbildu

EGINGO DUGU.



ASKABIDE
kultur elkartea
ZORROTZA



Pagasarri (671 m.)

MANU COBO

Bizkaiko hiriburua inguratzen dauen mendirik klasiko eta ezagunena da. Ganekogortak mendilerroan dau. Sektoreko gailurrik altuena da Ganeta (689 m), Pagasarriko (646 m) babesleku ospetsua dagoen mendi-lepoaren iparraldetik oso gertu baitau. Izan ere, hegoaldeetik Bilbo menderatzen dauen mendiguneko mendirik garaiena Ganekogortako gailurra (998 m) bada ere, Pagasarrik Bilboko mendirik klasikoena eta jendetsuena izaten jarraituko dau.

Pagasarri esaguna da oso Bilbo handian eta bere aterpea, 1914an udalak eraiki eban Bilbao MTak eskatute, mendizaletasuna zabaltzen zalako gero ta gehio. Adibiderako, 1915ean ganekogortako gailurretik kide batzuk zabaldu ebien “ehun mendiko” txapelketa, gaur egun esagutzen dogune aldaketa txiki batzuekaz.

Ganetapean, eta Pagatik Ganekorako bidea, Tarin iturria topatuko dogu, bere garaian iturri azpitik dutxa batzuk esagutu genduzan, eta arro ateratzen ginan bere ur freskoetatik ateratzen ginenean, udan zein neguen....

Tarinera jeistean eluzulo bat igaroko dogu, XVII.mendean eginde, Bilbora leie jaisteko erabiltzen zala.

Auzotik igotzeko Arraitzetik igoko gara, Artigaserantza jeitsin beharrean, Aurrera egingo dogu pistatik. Aukera bi dekoguz, pistaren eskumaldean ikusten dogun torrelektrikotik albotik Restaleku bidea hartzea, txikerra baino gogorra.... Edo pista jarraitu goardetxera heldu arte, handik eskumera eta beti gora Pagako aterpera heldu arte, lau pausu gehio ta tontorrean egongo gara. Restalekutik, behin gailurra heldutek, ezkerrarantz joko dogu Ganetara heldu arte, jeitsi apur bet ta aterpean egongo gara, salto batez gailurrean.

Jeisteko aukera asko, Larraskiture pista galdu barik ta gero Bilbo zeharkatuz auzora, Arraitzetik igo garen bidetik, Alonsotegira Tarinetik beherantza (luzetxu), Restalekutik berantza Kastrexanako gasolindegira (Ordunteko ubedetik itzultzeko moduen, Artigasetik jeitsi ginanean lez...), Errekaldetik Arraitz auzotik, Monte karamelotik, Altamiratik, Masustegitik..... Asko dekoguz, eta danak Zorrotzara ekarriko gaitue!!!



jaiak 2023

irailak 22, ostirala

> 20:30 **XAIBOR**

> 22:30 **AUZOKO DJ GAUA**

irailak 23, larunbata

> 23:00 orquesta **VERSUS**

irailak 24, igandea

> 18:30 conjunto **AFINKAO**

irailak 28, osteguna

> 18:30 **DI RULL ft. PATXA AMAMA**

irailak 29, ostirala

> 23:00 **KRESALA**

irailak 30, larunbata

> 23:00 **LA TOKOKERA
LA MALA PEKORA**

urriak 1, igandea

> 18:30 **LA KLANDESTINA**

Emanaldi guztiak Azoka plazako txosnagunean izango dira

Zorrotzara
heltzeko:



ibibus
• 18 • 85 • 88


Bizkaibus
• A3115 • A3116 • A3122 • A3136
• A3137 • A3144 • A3336
• A3341 • A3342 • A3343



renfe
• C1 • C2 (Zorrotza)



feve
(Zorrotza) Gurutzeta. Gertoketik 10 minutu oinez



Laketu ezinda

Irailak berez dakartza hala ohitura zaharrei berriz heltzea -txoko hauxe, adibidez- nola egoera berrietara moldatzea. Hilabete mugitua izan ohi da iraila, sentimendu kontraesankorrez betea. Hitz batean, intentsoa. Egongo da erabateko errutinak ematen duen lasaitasunetik bizi duenik, jakina. Niretzako, ordea, aldaketa bolada izan ohi da -ikasle izpiritua izaten jarraitzen dut, nonbait-. Hilabeteak ondo gorpuzten ditu berez urteko edozein garaitan eman daitezkeen gorpuzaldi eta barne-egoera.

Nire esperientzia murriztari esker jadanik ikasi dudanez, bizitzan badira une eta bolada deserosoak. Ez naiz gertaera lazgarrienez ari, halere -senide edo lagun baten heriotza, ingurukoen gaixotasunak, muturreko egoera ekonomikoa-, ezta gorabehera emozionalekin lotura estuena duten horiez ere -harreman sexu-afektiboekin, zehazkiago-Gauza txikiagoez ari naiz, inguru berrira moldatzeak dakarren estres eta larridura puntuaz, kasurako. Aurpegi berriak ziztuan igarotzen dira



ASIER URKIZA

“ **Ekosistema berri batera jauzi egitea bezalakoa da aurpegi berrien artean ibiltzea. Ezin jakin ondokoaren asmo zinezkoetz, lausotuta ageri denez norbere izaera. Hasierako jokabide tentuzkoak ditugu, baina ba ote dira nahikoa pertsona bat ezagutzeko?** ”

bizitzatik, harremanak korapilatzen dira, zahar-rak itzaltzen eta berriak ernatzen. Ekosistema berri batera jauzi egitea bezalakoa da aurpegi berrien artean ibiltzea. Ezin jakin ondokoaren asmo zinezkoetz, lausotuta ageri denez norbere izaera. Hasierako jokabide tentuzkoak ditugu, baina ba ote dira nahikoa pertsona bat ezagutzeko? Ilunpe horietan itsumus-tuka egiten dugu aurrera, harik eta, denbora igaro ahala, argiguneak sortzen hasten diren arte. Orduan bihurtzen da urruna zena hur, ezezaguna zena ohiko aurpegi. Hazten dira afektuak loratzen.

Bien bitartean, gozaka-itz ibili ohi gara, laketu ezinda. Uneoro erne, estimulu berriak xurgatzen, beldurrak airean sarri. Tentsioan. Ez dakiguna zera da, hain zuzen ere bolada horietan ernatzen dela datorrenaren fruitua. Geroko goxo aldiak neurri batean horien emaitza direla. Eta, batez ere, norbanako gisa hobetzeko aukera ematen digutela, bizitzaz irakaspena emateaz gain. Izan ere, horrelakoa da bizitza, ez hobe, ez okerragoa. Mikatza bezain gozoa, bata bestea gabe ulertu ezin dela.

Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidaliguzu zure artikulua zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarrita. Eskerrik asko!



TXOKO FEMINISTA



Amaitu da. Munduko Futbol Txapelketaren ospaketan emandako gertakaria kolpe pertsonal eta profesional gogorra izan da erasotutako futbol jokalariaientzat.

Horrez gain, agerian utzi du gaur egun Espainiako gizartearen onarpenak duen garrantzia, maskulinitate hegemonikoa praktikatzen dutenen artean horrek eragiten duen arbuioa agerian uzteaz gain.

Gainera, erasotzailearen eta haren inguruko jarrera, matxismo aurreratuari buruzko eskuliburu batetik ateratakoa da:

biktima erruduntzat jotzea, erasoaren ondoren bere erreakzioa baloratzea, deskalifikatzea, gezurra esatea errealitatea bere bertsioarekin bat etor dadin, gertatutakoa minimizatzea, gizona biktima gisa aurkeztea, beste gizon eta emakume aliatu batzuen babesa erabiltzea, eta, azken batean, auto-kritikaren zantzurik txikiena ere ez izatea.

Izan ere, hau guztia milioika pertsonen ikusitako eraso batekin gertatu bada, zer ez zaie gertatuko egunerokotasuneko inguruneetan indarkeria jasaten duten emakumei?

IRATZE PÉREZ

SALAKETA ARGAZKIA

Zenbat gehiago itxaron behar da?

Laster bi urte beteko dira euriak eragindako lur-jauzi batek Zorrotza Bilborekin lotzen duen bidegorriaren zati bat moztea eragin zuenetik.

Bi urte luze hauetan, Udala eta Adif (lurrean jabea) ez dira gai izan lur pila bat kentzeko agindua adosteko. Aldi berean, erakunde horiek miloika euroko akordioak sinatzen dituzte abiadura handiko tren geltokiak kudeatzeko. Bi urte hauetan, anitzak izan dira oinezkoen eta txirindularien arteko arriskuak, espaloitik igarotzera behartuak baitaude azken hauek.

Bitartean, airean galdera bat: kotxeentzako errepide batean gertatu izan balitz, erakundeen utzikeria berdina izango litzateke?



LASTER

Elektrizitatea
elektronika

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ARGIZTAPENA
- SARE INFORMATIKOAK

TFNO./FAX: 94 442 46 35
LARRIALDIK: 657 79 57 04
www.electricidadlaster.net

MENDIGAIN ETXALDEA
ZORROTZA 48013



FARMAKOTEGIA SUSANA URRITIKOETXEA

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tlfnro. 94 441 61 46

ROCKET TAVERN



Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98



Silvia

Betidaniko dantza-musika jotzen duen berbena ona eta kaleak animatuko lituzketen fanfarria gehiago.



Sonia

Egia esan, bai txikientzako zein helduentzako ekintza pila bat egiten denez, ez dut ezer faltan sumatzen.

IRATZE PÉREZ



Zorrotzako jaiak.

Zer duzu faltan?



Agus

Egun sargoritsueta, umeentzako ur-parkea. Eta oro har, komun gehiago behar direla uste dut.



Lander

Komun gehiago... Karaokea, bigantxa, puzgarriak eta duela urte batzuk egiten ziren bezalako jaitziera animatuak, adibidez.



Lorena

Umeek dantzan egiteko jardueraren bat akaso. Eta txiki-txikientzako ekintza gehiago antolatuko nituzke.

Regalos Omega
oparidenda

Frai Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza
94 482 03 66

www.omegadetalles.com



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefonoa: 94 442 17 12

*cafe***txinbo**

Espezialitateak:
Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74



17 eskaltegi, eskaintza zabala eta dirulaguntzak

Euskarari baietz

Matrikulazio epea zabalik eskaltegietan!

bilbaeuskaraz.bilbao.eus



B

Bilbao



iKasi
MiKasi!

0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe



HEZKUNTZA, ENBIZIETA, ENBIZIETA

Pinadia etbaldea, 6. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 442 48 75 • ☎ 94 442 48 75
● stetecampas@gmail.com



HEZKUNTZA, ENBIZIETA, ENBIZIETA

Ikastalde etbaldea, 12. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 442 00 21 • ☎ 94 442 00 21
● 014159aa@hezkuntza.net



San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 428 01 36
● 94 428 01 37
● 015078aa@hezkuntza.net
www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net

BILBON

euskara hurbil,
zu urrun heltzeko

a tu lado,
para llegar lejos



Zorrotza AEK euskaltegia

2023-2024 IKASTURTEA

MATRIKULA ZABALIK • EMAN IZENA

Zalbidea 7, behea | **94 441 49 20** | zorrotza@aek.eus

DIRULAGUNTZAK / BECAS

EUSKO JAURLARITZA:
malla egiaztatuz gero,
Gobierno Vasco, acreditando un nivel

BILBOKO UDALA
Maila eta asistentzia egiaztatu behar da.
Acreditador nivel y asistencia